

2007ko apirilaren 10ean, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

1. - 2.007KO MARTXOAREN 20EKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
2. - ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
3. - ZENBAIT LAN GAUZATZEKO AKORDIOA
4. - 1.8 UNITATEKO URBANIZAZIO PROIEKTUA GAUZATZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN HASIERA ADOSTEKO AKORDIOA. PLEGUEN ONARPENA.
5. - ZABALE TXIKIKOEKIN HITZARMENA EGITEA ETA ALKATEARI ESKRITURAK UDALAREN IZENEAN SINATZEKO AHALMENA EMATEKO AKORDIOA.
6. - ERRIBERAKO UDAL LURSAILAREN SALMENTA GAUZATZEKO AKORDIOA.
7. - ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
8. - ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA
9. - ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
10. - GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2007ko Apirilaren 4.

ALKATEA

2.007KO apirilak 10

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.
Patxi Ormaetxea Otegi.
Jabier Zabala Zabala.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Antton Artola Iburguren
Miren Aburuza Alkorta

IDAZKARIA:

Nerea Ubeda Etxarri.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko apirilaren hamarrean,, hogeita bat orduak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.007KO martxoaren 20eko AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2007ko martxoaren 20eko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:

ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinarazten du:

1.- Adunako Irigarritasun Plana gauzatzeko esleipena ADIR enpresari esleitzea. (23/2007 Alkatetza Ebazpena).

2.- SUEKON enpresari martxoak 26ean gauean hormigoia botatzeko baimena ematea (24/2007 Alkatetza Ebazpena).

3.- "Construcciones Tratik" aurkeztutako 1.5-6 unitateko jarajeen jarduera baimenaren tramitazioa hasteko erabakia (25/2007 Alkatetza Ebazpena).

4.- "Central Forestal"-i Udaleko Haizpea Zonaldeko 4000m² tako lursaila erabiltzeko baimena ematea (26/2007 Alkatetza Ebazpena).

5.- Zubitxiki 14 ko estalpea egokitzeko baimena onartzea (27/2007 Alkatetza Ebazpena).

HIRUGARREN PUNTUA:

ZENBAIT LAN GAUZATZEKO AKORDIOA

Aho batez, Udalbatzak, aho batez, hurrengo obrak gauzatzea onartzen du:

1.- *Endakiko espaloitik argiteriaren kanalizazioa gauzatzea.* Horretarako aurkeztutako 8.853,12 eurotako aurrekontua eta gastua onartzen da.

2.- *Aizpea zatiko asfaltatze lanak.* Horretarako aurkeztutako 9.419,20 eurotako aurrekontua eta gastua onartzen da.

LAUGARREN PUNTUA:
1.8 UNITATEKO HIRITARTZE PROIEKTUAREN LANEN ESLEIPENA AGAUZATZEKO KONTRATAZIO PLEGUEN ONARPENA.

Adunako 1.8 unitateko hiritartze obrak **PROZEDURA IREKIAZ** esleitzeko **LEHIAKETA** arautuko duten Baldintza Administratibo Partikularren orria AHOBATEZ ONARTZEN DU Udalbatzak:

BOSTGARREN PUNTUA:
ZABALE TXIKI ETA ALKATEARI ESKRITURAK UDALAREN IZENEAN SINATZEKO AHALMENA EMATEKO AKORDIOA

1.8 unitateko hiritartze proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren lursail batzuk eskuratzeko Zabale-Txiki etxeke jabeekin hitzarmena sinatzea aho batez onartzen da. Bestalde, Alkate Andereari Hitzarmen hauetatik inskribatu beharreko eskriturak udalaren izenean sinatzeko ahalmena ematea adosten da Udalbatza osatzen duten kide guztien onarpenarekin

SEIGARREN PUNTUA:
ERRIBERAKO UDAL LURSAILAREN SALMENTA GAUZATZEKO AKORDIOA

Udalbatzak, aho-batez, gaia mahaiaren gainean uztea erabakitzen da.

ZAZPIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.

Hurrengo dirulaguntzak ematea onartzen da:

1.- Euskal Irratiak 2005-2010 deitutako programa gauzatzeko diru-laguntza eskatzen duela ikusirik, Udalbatzak 150 euroko laguntza ematea adosten du.

ZORTZIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.

Ez dago 3.000 euro baino gehiagoko fakturarik

Gai Zerrendatik kanpo, aho-batez, honako gaiak barneratzea eta bozkatzea onartzen da:

1.- Joan den 2007ko martxoaren 20ean hartutako erabakia zuzenduta, honela geratzea onartzen du aho-batez Adunako Udaltzakerak:

Joan den 2004ko abenduaren 17an, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Batzar Nagusiak Erakunde horren Saneamendu Planaren Bosgarren Berrikuspenari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Berrikuspen honen oinarria, funtsean, Tolosaldeko Hondakin Uren Araztegiaren kokapen berria Adunako udalerrian kokatzea zen, onarpenaren ondorioak Adunako Udaltzakerak kokapena onetsi arte atzeratuz.

Adunako Udaltzakerak, aho-batez Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Saneamendu Planaren Bosgarren Berrikuspenean azaltzen den Tolosaldeko Hondakin Uren Araztegiaren kokapena Adunako izatea onartzen du. **Beti ere, Araztegiaren proiektua baldintzatuta egongo da 2007ko martxoaren 6ko Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluko akordio bidez onartuak izan ziren Adunako Arau Ordezkatzaileek honi buruz xedatzen dutenarekin .**

2.- UEMAko Batzar Nagusiak, 2004ko urriaren 16an egindako bilkuran, bere estatutuen zenbait artikulua aldatzea onartu zuen. Esate baterako, estatutuen 1, 4 eta 23 artikulua izan ziren aldatuak. Mankomunitateko udaltzakerak estatutu aldaketari behin betiko onarpena eman behar diotenez, Adunako Udaltzakerak, aho-batez, onartzen du estatutu aldaketak.

3.- Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluek 2007ko martxoaren 6ko erabaki bidez, Adunako Arau Ordezkatzaileen errebisio espedientearen barne, "Aitzpea Baserria Bat" 3., "Aitzpea Baserria Bi" 4., "Gaintza Behekoa Bat" 5.A, "Gaintza Behekoa Bi " 5. B eta "Gaintza Behekoa Hiru" 6 areetan behin betiko onarpena eten zen. Aipatutako Area hauen zuzenketak egin ondoren, 20 egun naturaleko apezan jendaurrean ezartzea adosten da, interesdunek alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu eta berrogeita bost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

